| **ONARPEN-ZERBITZUKO LANGILEEN GAIKUNTZA-AZTERKETA** | **EXAMEN DE HABILITACION DEL PERSONAL DEL SERVICIO DE ADMISIÓN** |
|---|---|
| **Proban izena ematea** | **Inscripción en la prueba** |
| **Proban izena emateko Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa erabili behar duzu:** [Onarpen-zerbitzuko langileen erregistroa - Eusko Jaurlaritza (euskadi.eus)] | La inscripción se realizará a través de la sede electrónica del Gobierno Vasco. [Registro del personal de servicio de admisión - Gobierno Vasco (euskadi.eus)] |
| **Proba egin ahal izateko betekizunak:** | Requisitos para presentarse a la prueba: |
| **- Adinez nagusia izatea.**<br>**- Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea izatea edo kasuan kasuko lan- edo bizileku-baimena.**<br>**- Aurrekari penalik ez izatea.**<br>**- Indar Armatuen edo Segurtasun Indar eta Kidegoen zerbitzutik kentzeko zehapenik jaso ez izana, segurtasun pribatuko langile gisa jarduteko gaikuntza behin betiko erretiratuta ez edukitzea, edota aurreko hiru urteetan gaikuntza ezeztatuta ez edukitzea.**<br>**- Gutxienez, titulu hauetako bat izatea: lehen-mailako ikasketen ziurtagiria, eskola-graduatua, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatua edo erdi-mailako lanbide-heziketa, hezkuntza-administrazioak homologatuta.** | - Ser mayor de edad.<br>- Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea o el permiso de trabajo o de residencia correspondientes.<br>- Carecer de antecedentes penales.<br>- No haber sido sancionado con la separación del servicio en las Fuerzas Armadas o las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad, ni con la retirada definitiva de la habilitación para ejercer como personal de seguridad privada, ni haber sido objeto de revocación de la habilitación durante los tres años anteriores.<br>- Estar en posesión, como mínimo, de alguno de los siguientes títulos: certificado de estudios primarios, graduado escolar, graduado en educación secundaria obligatoria o formación profesional de grado medio o nivel equivalente homologado por la administración educativa. |
| **Identitatea egiaztatu behar da Espainiako estatuan indarrean dagoen dokumentu ofizial baten bidez (NAN, gidabaimena, AIZ, pasaportea, bizileku- edo lan-baimena) edo norbera nazionala den Europar Batasuneko estatu kideko dokumentu ofizialaren bidez.** | La identidad deberá acreditarse por medio de documento oficial en vigor del estado español (DNI, licencia de conducir, NIE, pasaporte), o por documento oficial correspondiente del país estado miembro de la Unión Europea del que se es nacional. |
| **Matrikulatzeko epea. Matrikulatzeko epea aukeratutako data baino 7 egun natural lehenagora artekoa izango da. Laguntza bereziren bat behar izanez** | Plazo de matriculación. La matriculación deberá realizarse hasta 7 días naturales antes de la fecha escogida. En caso de necesitarse alguna asistencia especial, |

| | |
|---|---|
| **gero, epe hori luza daiteke baldin eta informazio gehiago jasotzea beharrezkoa bada, azterketa-formatuari egokitzapenak egin behar bazaizkio edo azterketa egin bitartean laguntza espezializatu motaren bat eskatu behar bada. Epea lan horiek aurrera eramateko behar beste denboraz luzatuko da, baina, guztira, inoiz ez hilabete baino gehiago.** | podrá alargarse este tiempo si fuera necesario recabar más información, efectuar adaptaciones al formato del examen o requerir algún tipo de asistencia especializada durante su realización. Este plazo se alargará lo imprescindible para llevar a cabo estas tareas, sin poder ser superior a un mes en su totalidad. |
| **Azterketa ezin bada aukeratutako KZgunean egin, azterketa egokitua ezin zaiolako eman edo beste edozein alderdi tekniko edo logistikorengatik, beste konponbide batzuk proposatuko dira.** | En caso de no poder realizarse el examen en el centro KZgunea elegido, ya sea por la imposibilidad de dotarlo de un examen adaptado, o por cualquier otro aspecto de tipo técnico o logístico, se propondrán soluciones alternativas. |
| **Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak (aurrerantzean JIZ), egokitzat joz gero, desgaitasunaren ziurtagiria eska lezake.** | La Dirección de Juego y Espectáculos podría solicitar certificado acreditativo de discapacidad si lo considerara conveniente. |
| **Matrikulak aukeratutako KZgunerako, datarako eta ordutegirako baino ez du balioko.** | La matrícula será válida únicamente para el centro KZgunea, fecha y horario escogido. |
| **Inolako justifikaziorik gabe, bi aldiz matrikula egin eta aurkeztu ezean, ez dago berriz ere matrikulatzerik, harik eta erabiltzailea aurkeztu ez den azken azterketaren datatik bi hilabete igarotzen diren arte. JIZek hori interesdunari jakinaraziko dio eta hark justifikazio-dokumentuak aurkeztu ahal izango ditu.** | En caso de no presentarse dos veces, sin causa justificada, no podrá matricularse de nuevo hasta pasados dos meses desde la fecha del último examen no presentado. La DJE notificará esta circunstancia a la persona interesada, quien podrá presentar la documentación justificativa. |
| **Interesdunak kausa justifikatuengatik matrikula ezeztatu behar badu, baina epea pasatu delako ezin badu webgunearen bidez egin, JIZekin harremanetan jarri beharko du (jokoetaikuskizunak@euskadi.eus)** | En caso de tener que realizar una anulación por causas justificadas y no poder hacerlo desde la web porque ha pasado el plazo, deberá ponerse en contacto con la DJE (jokoetaikuskizunak@euskadi.eus). |
| **Interesduna ezin da aldi berean deialdi batean baino gehiagotan izena emanda egon. Deialdi batean inskribatuta egonez gero, ez dago beste batean matrikulatzerik. (Adibidez: pertsona bat ezin izango da bi hilabeteren buruan izango den deialdi batean** | No se puede estar inscrito en más de una convocatoria a la vez. Si la persona ya está inscrita en alguna convocatoria, no es posible matricularse en otra. (Ejemplo: una persona no puede matricularse para una convocatoria dentro de dos meses si ya está matriculada para dentro de |

| | |
|---|---|
| **matrikulatu, baldin eta hamabost egunen buruan egingo den deialdian matrikulatuta badago).** | quince días). |
| **Dagoeneko aprobatuta daukanak ezin du berriz azterketa egin.** | No se puede hacer el examen si ya se ha aprobado. |
| **Datuen babesa. Datu pertsonalak azterketa kudeatzeko eta Onarpen Zerbitzuko Langileen Erregistroaren helburuetarako erabiliko dira (17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena).** | Protección de datos. Los datos personales se utilizarán para gestionar el examen y para los fines del Registro del Personal de Servicio de Admisión (Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el reglamento de desarrollo de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas). |
| **<u>Azterketa egitea.</u>** | **<u>Realización del examen</u>** |
| **<u>Azterketa egiten den bitartean</u>** | **<u>Durante el examen</u>** |
| **Matrikulatutakoan, erabiltzaileak baieztapen-mezu bat jasoko du, kode batekin batera. Kode hori beharrezkoa da azterketen webgunera sartzeko eta saioa aldatzeko edo saioari baja emateko.** | Al realizar la matriculación, la persona usuaria recibirá un correo de confirmación, junto con un código. Ese código es necesario para acceder a la web de exámenes, y para modificar o dar de baja la sesión. |
| **Nahitaezkoa da indarrean dagoen identifikazio-dokumentua eramatea: NAN, AIZ, pasaportea, gidabaimena, bizileku- edo lan-baimena edo Europar Batasuneko kasuan-kasuko estatu kideko dokumentazio ofiziala. Probaren arduradunak aurkeztutakoen identitatea egiaztatu beharko du.** | Es requisito indispensable llevar un documento de identificación en vigor: DNI, NIE, pasaporte, licencia de conducir, permiso de residencia o de trabajo, o documentación oficial del respectivo estado miembro de la Unión Europea. El tutor de la prueba verificará la identidad. |
| **Pertsonak zentrora 6 urtera arteko haurrekin sartu ahal izango dira, baldin eta proba bitartean haur horiek isilik badaude eta beste erabiltzaileak molestatzen ez badituzte.** | Podrán acceder al centro personas con bebés o niños y niñas de hasta 6 años siempre que mantengan silencio y no molesten al resto de usuarios durante la prueba. |
| **Pertsona bat arrazoiren bategatik probara joaten ez bada, ez-aurkeztu gisa agertuko da. Arrazoia justifikatu ahal izango du, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez dagokion dokumentazioa edo eskaera** | Si no se acude a la prueba por algún motivo, constará como no presentado. Podrá justificar el motivo presentando la documentación o solicitud oportuna a través de la sede electrónica del Gobierno Vasco. |

| | |
|---|---|
| **aurkeztuz.** | |
| **Azterketa egiteko ordubete dago.** | Se dispone de una hora para realizar el examen. |
| **Azterketek 25 galdera dituzte; alde teorikoari 17 dagozkio eta alderdi praktikoari 8 dagozkio. 15 galderari zuzen erantzun behar zaie gainditzeko; horien artean, gutxienez alde teorikoko 11 erantzun zuzen egon behar dira, eta alde praktikoko 4 erantzun zuzen. Erantzun okerrak ez dira zenbatuko.** | Los exámenes tienen 25 preguntas, 17 correspondientes a la parte teórica y 8 correspondientes a la parte práctica. Hay que responder correctamente a 15 preguntas para aprobar, entre las que debe haber un mínimo de 11 respuestas correctas pertenecientes a la parte teórica y 4 respuestas correctas pertenecientes a la parte práctica. Las respuestas incorrectas no se contabilizarán. |
| **Zati teorikoak "Onarpen-zerbitzuko langileak gaitzeko ikastaroa" eskuliburuko 1etik 7ra bitarteko unitateak hartzen ditu. Alde praktikoa, aldiz, 8 eta 9 unitateak.** | La parte teórica abarca las unidades 1 a 7 del manual “Curso de habilitación como personal del servicio de admisión”. La parte práctica, las unidades 8 y 9. |
| **Galdera-sorta jende guztiaren esku dago JIZen web gunean.** | La batería de preguntas está a disposición del público en la web de la Dirección de Juego y Espectáculos. |
| **Erabiltzailea galderen zerrendan aurrera eta atzera mugitu ahal izango da eta aurretik emandako erantzun bat aldatu ahal izango du, harik eta azterketa amaitu duela baieztatzen duen arte.** | La persona usuaria podrá navegar entre el listado de preguntas, pudiendo cambiar una respuesta previa antes de confirmar la finalización del examen. |
| **“Azterketa amaitu” izeneko botoia sakatzean, erantzun gabeko galderak badaude, abisatuko du eta, azterketa bidali aurretik, azterketa bidali nahi dela baieztatzeko eskatuko du.** | Hay un botón de “Finalizar el examen”, que dará un aviso para decir que hay preguntas sin contestar y una confirmación previa al envío del examen. |
| **Uneren batean erabiltzailea aplikaziotik ateratzen bada – salbu eta akats teknikoengatik bada- azterketa amaitu duela baieztatu gabe, eskaera bete dela agertuko da eta lehenespenez ez-gai emaitza emango du.** | Si en algún momento la persona usuaria sale de la aplicación sin haber confirmado la finalización del mismo, la solicitud cuenta como cursada y por defecto estará suspendido. |
| **Azterketa amaitutakoan, erabiltzaileak proba amaitu duela baieztatu ondoren, aplikazioak erakutsiko dio asmatutako galderen portzentajea eta adieraziko dio gaindituta dagoen ala ez. Era** | Al finalizar la examinación, tras la confirmación de finalización de la prueba por parte de la persona usuaria, la aplicación mostrará el porcentaje de preguntas acertadas, e indicará si se ha |

| | |
|---|---|
| **berean, "Berrikusi azterketa" aukera klikatuta, zuzen eta huts egindako galderen laburpena erakutsiko da. Gainditu ezean, beste saio batean erregistratzeko aukera izango du.** | aprobado o no. Asimismo, clicando la opción "Revisar examen", se mostrará el resumen de las preguntas acertadas y falladas. En caso de no haber aprobado, tendrá la opción de registrarse en una nueva sesión. |
| **Zentroko arazoren bategatik (sarean edo horniduran arazoak, makinetan akatsak, etab.) azterketa ezarritako orduan hasi ezin bada, zentroaren arduradunak, behin matxura konpondu denean, erabakiko du geratzen den denbora proba amaitzeko nahikoa den ala ez.** | Si no es posible iniciar el examen en la hora establecida porque el centro tiene algún tipo de problema (problemas de red, de suministro, fallo de máquinas, etc.), el personal educador decidirá una vez solucionada la avería si el tiempo restante es suficiente para terminar la prueba. |
| **Norbait ezarritako ordutik 10 minutura aurkeztuz gero, ezin izango da proban sartu eta ez-aurkeztu gisa agertuko da.** | En caso de presentarse 10 minutos después de la hora asignada, no podrá acceder a la misma, dándose la prueba por no presentada. |
| **Erabiltzailea ezin izango da proba egiten hasi, harik eta zentroaren arduradunak proba hasitzat jotzen duen arte, hau da, erabiltzaile guztiak identifikatuta eta proba egingo duten ordenagailuaren aurrean eserita egon arte.** | La persona usuaria no empezará la prueba hasta que el responsable del centro dé por empezada la misma, esto es, cuando todas las personas usuarias estén identificadas y sentadas delante del ordenador donde se hará la prueba. |
| **Erabiltzailea azterketaren aplikaziora baino ez da sartuko eta ez du esleitutako PCan eskuragarri dauden beste aplikazioetara sartzerik izango.** | La persona accederá únicamente a la aplicación de examen, sin tener la posibilidad de acceder a otras aplicaciones que estuvieran disponibles en el PC asignado. |
| **Zentroaren arduradunak ezin izango dizkie erabiltzaileei edukiari buruzko galderak erantzun, aplikazioaren funtzionamenduari buruzkoei baino ezin izango die erantzun.** | La persona responsable del centro no podrá resolver dudas de contenido de las preguntas a las personas usuarias, exclusivamente podrá resolver dudas de funcionamiento de la aplicación. |
| **Probak dirauen bitartean, erabiltzailea isilik egongo da, ez du ahoz gora iruzkinik egingo, eta ezin izango dizkie beste erabiltzaile batzuei erantzun gabeko galderei buruzko kontuak kontsultatu.** | Durante la prueba, la persona usuaria mantendrá una actitud de silencio, evitando comentarios en voz alta, no pudiendo consultar con otras personas usuarias aspectos relativos a las preguntas sin resolver. |
| **Erabiltzaileak 15 minutuz aplikazioarekin elkarreragiten ez badu, saioa iraungiko da eta erabiltzailea** | Si la persona usuaria permanece 15 minutos sin interactuar con la aplicación, expirará la sesión y la persona usuaria |

| | |
|---|---|
| **berriz ere identifikatu beharko da.** | tendrá que volver a identificarse. |
| **Ezin da apunterik edo ikasketa-materialik erabili, eta ezin da papera edo beste baliabide elektronikorik ere erabili azterketako galderen edukia biltzeko.** | No está permitido el uso de apuntes o material de estudio, el uso de papel u otro medio electrónico que posibilite la captación del contenido de las preguntas presentadas. |
| **Zentroaren arduradunak proba globala ezeztatzeko ahalmena dauka, baldin eta inguruabarrengatik hori egitea beharrezkoa bada.** | La persona responsable del centro tendrá autoridad para anular la prueba global cuando las circunstancias lo requieran. |
| **Zentroaren arduradunak erabiltzaile batek proba egiteari utz diezaiola erabakitzeko ahalmena izango du, baldin eta inguruabarrengatik hori egitea beharrezkoa bada.** | La persona responsable del centro tendrá autoridad para decidir si una persona usuaria no continúa realizando una prueba cuando las circunstancias lo requieran. |
| **Erabiltzaileak proban jarrera ezegokia badauka (apunteak edo mugikorra erabiltzea, etab.) probetatik baztertuta utzi ahal da bi hilabetez. Erabiltzailea berrerorlea bada, sei hilabetez izango da kanporatua.** | La persona usuaria que tenga una actitud inadecuada durante la prueba (uso de apuntes, móvil, etc.), podrá ser excluida para la realización de las pruebas durante dos meses. Si se trata de una persona usuaria reincidente, se le excluirá durante seis meses. |
| **<u>Azterketa amaitzea</u>** | **<u>Finalización del examen</u>** |
| **Gaindituz gero, erabiltzailea Euskal Autonomia Erkidegoko onarpen-langileen erregistroan inskribatuta geratuko da eta horren ziurtagiria bidaliko zaio Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bitartez. Hori guztia egingo da, aurrekari penalik ez daukala egiaztatu ondoren. Betekizun hori edo beste betekizun batzuk bete ezean, jakinarazpen bat bidaliko zaio bere eskaerari ezezko ebazpena eman zaiola informatzeko.** | En caso de aprobar, se inscribirá a la persona usuaria en el registro de personal de admisión de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se le enviará certificado por medio de la sede electrónica del Gobierno Vasco. Todo ello previa comprobación de la ausencia de antecedentes penales. En caso de no cumplir con este u otros requisitos, se le enviará una comunicación informando de la resolución negativa de su solicitud. |
| **Zentroaren arduradunak ezin du erabiltzaileak lortutako emaitzari buruzko zalantzarik argitu. Probarekin berarekin zerikusia daukaten erreklamazioei ere ezin die erantzun. Idatziz jaso beharko ditu, gero JIZek trata ditzan.** | La persona responsable del centro no podrá resolver dudas sobre el resultado alcanzado por la persona usuaria. Tampoco podrá resolver ninguna reclamación solicitada que tenga que ver con la prueba en sí. Sólo tratará de anotarlas, para su posterior tratamiento por la DJE. |
| **Proba amaitutakoan, aplikazioak** | Al finalizar la prueba, la aplicación dará el |

| | |
|---|---|
| **emango dio erabiltzaileari bere emaitza (emailez ere jasoko du emaitza bera) eta, proba suspenditu badu, berriro inskribatzeko aukera erakutsiko dio. Ez da onartuko azterketa errebisiorik.** | resultado a la persona usuaria (también recibirá este mismo resultado por email), y en caso de que haya suspendido la prueba, le mostrará la posibilidad de volver a realizar una nueva inscripción. No se realizarán revisiones de examen. |